**ERREPORTAJEA** "DEJA QUE CANTE EL GALLO" EDU ARRILLAGAREN ARGAZKI ERAKUSKETA

**GEHIGARRIA** JAIETAKO EGITARAUA EGUNEZ EGUN, 22tik 29ra

# Barren

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2004ko abuztuaren 23a/XII. urtea/498. zkia



# 7 egun eta 7 gau Bartolomeren omenez

"LAN DAGO LAN, BIHAR SAN BARTOLOME ETA SOINEKOA DENDAN" (esaera zaharra)

# Elustondo, S.L.

EDARI BANATZAILEAK

## Elustondok aholkatuta:



*Faustino, David Moreno eta Araco kriantzak*



*Faustino V eta David Moreno erreserbak*



*Faustino VII hainbat urtabetako nahasketa*



*Aizpurua, TxominEtxaniz, Roke Eizaguirre txakolinak eta Bereziartua sagardoa*



*Juve Camps eta Jume Serra cava*



*Idiaquez, David Moreno eta Señorio Araco urteko ardo beltzak*

- Denominazio gabeko Errioxako ardoak
- Errioxako ardoak
- Kriantzak, erreserbak,...
- Cavak, "Faustino", "Martinez"...
- Orujoak / Afilador orujoa
- Likoreak
- Getariako Aizpurua txakolin freskoa
- Kontserbak



Trujal Mendia (Arroniz)
Nafarroako oliba-olio birijin estra

**San Roke, 32 - 34 (Institutu parean)** **Tel. 943 74 09 92**

# GREMIOEN GIDA

## AROZTEGIAK

**BIENA**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ **943 74 31 16**

**ETXEKIT**
Erreformak-proiektuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ **943 74 43 47**

**GARCIA**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ **943 74 32 38**

**LODOSO**
Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
☎ **943 74 34 90**

**SORALUZE**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ **943 74 36 34**

**ULAZIA**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ **943 74 05 47**

**ZABALA**
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
☎ **943 74 03 96**

## ITURGINTZA, GASA, KALEFAKZIOA ETA KLIMATIZAZIOA

**ANGEL**
Santa Ana, 5
☎ **943 74 17 61**
☎ **689 04 92 06**

**ONGI**
Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ **943 74 28 80**

**PAGOAGA**
San Antolin, 13
☎ **943 74 02 79**

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ **943 75 50 62**
☎ **607 75 50 62**

**ZALDUA**
Urasandi, 26
☎ **943 74 05 30**

## PINTURAK

**BIOK DEKORAZIOA S.L.**
Santa Klara, 26 behea ezkerra
☎ **943 74 15 52**
☎ **606 43 11 19-20**

**IPINTZA**
Foruen enparantza, 4
☎ **943 74 04 40**
☎ **607 74 04 40**

## ELEKTRIZITATEA

**ARAMAR**
Morkaiko, 1
☎ **943 74 12 80**

**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
☎ **943 74 12 38**

**JOSEBA**
Pedro Muguruza, 29
☎ **943 74 09 02**
☎ **659 93 49 64**

**URZELAI**
Santa Ana, 12-14
☎ **943 74 13 76**

## IGELTSERITZA

**ANTONIO MARKEZ**
Urasandi, 24
☎ **943 74 34 18**

**JOSE LUIS MENDEZ**
Urasandi, 24
☎ **943 74 29 87**
☎ **679 19 77 47**

**E. ARANDIA**
Urasandi, 17
☎ **605 70 52 04**

## ISOLAMENDUAK

**GLAS CONTROL S.L.**
Isolamenduak
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ **943 74 30 94**




IZAN ZIRELAKO GARA
GARELAKO IZANGO DIRA
JAIETAN ERE EUSKALDUN

EUZKO
GAZTEDI

Elgoibarko **EGI**

asteko notizia



## Txapliguak

Eguerdi aldeko txapliguek despertadorearena egingo dute gaur: barruko jai zaletxoa esnatuko digute, denok daukagulako barruan (batzuek oso barruan eta beste batzuek nahiko kanpoan) festa zaletxo bat, oporretan izan denak, oporrik izan ez duenak, ikasten aritu denak, batere ikasi ez duenak, uda-sasoiari agur esateko penaz dagoenak, "betiko martxa " berreskuratzeko deseatzen dagoenak...

Datozen egunotan, goizetan txapliguak entzutean jakingo dugu zezenak kalean direla, eta txapliguek esango digute baita ere noiz hartu duten bueltan Lasturrerako bidea. Ekitaldi berezien berri ere emango digute txapliguek aurretik ditugun festa-egunetan. Jaietako egitarau sonoroa dira.

Baina egun eta gau hauetan izaten dira bestelako txapliguak ere, inongo egitarauetan azaltzen ez direnak, programatuta ez daudenak. Bakoitzaren barruan lehertzen diren txapliguak dira. Jendea irekiagoa den egunotan begirada batek, eskutik oratze batek, muxu batek, bati baino gehiagori txapliguak leherraraziko dizkio barruan. Txikienen barruan ere txapliguen zaparrada etengabea izango da, berria den edozerk piztuko ditu metxak. Mausitxa entzute hutsarekin egingo dute eztanda txapliguek hainbaten barruetan, Salbearekin, Soka-dantzarekin...

Txapligu bizigarri eta zoriontsuak izan ditzazuela!!!

**Montse Arregi**




# Iritsi dira San Bartolomeak

Jai giroan murgiltzeko zazpi egun eta zazpi gau. Horixe da abuztuaren 23a eta 29aren bitartean elgoibartarrok aurkituko duguna. Bada zerbait herriko jaietan bakoitzaren izaera aldarazten duena eta astebetez urtean zehar izan ez ohi garen moduan agertzen gara besteen aurrean, alaiagoak, atseginagoak, irekiagoak oro har. Herritar eta herritartasun sentimenduak azaleratzen dira. Daukagun onena ateratzeko garai aproposagorik ez dago, beraz. BARRENeko lantaldeak jaiak ahalik hobekien pasa ditzazuen opa nahi dizue.

Urtero moduan bi txupinazoek; ofizialak eta tradizionalak emango diote hasiera jaiari. Hortik aurrera bakoitzari dagokio bere neurriko festa topatzea, beti ere gainerakoak errespetatuz. Gu, berriz, kalean izango gara jaiak argazkitan jasotzeko. Ondoren, irailaren lehen astean jasoko duzue San Bartolome jaiei buruz prestatuko dugun ale berezia. Argazkiz jositako alea izango da eta udako oporren ostean lanean hasi behar dutenentzat jaiak moduko une atseginak gogoratzea lagungarria izango delakoan gaude. Baina ez gaitezen aurreratu gauza bakoitza bere garaian iritsiko da-eta.

**BARRENeko lantaldea**

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Kexak .................................................. 7

ErreportAJea .................................................. 11

kale inkesTa .................................................. 14

jaIetAko eGitaraUA .................................................. 19

2004-VIII-23

# Urruzunoren begi ezkutua

## Bizitza festa bat da



Badira sentsazio batzuk, hain basatiak, zuzenean galbidera eramango bagintuzte ere, ezingo genituzkeenak sentitzeke utzi. Amildegitik erori beharko bagina noraino eraman gaitzaketen frogatzeko, beldurrik gabe egingo genuke ezerezerantz jauzi. Suntsikorrak izan litezkeen arren, barrenbarrenean dakigu bide onetik garamatzatela.

Azkenaldian hasi naiz sinisten, luzaroan landutako desioak gorpuztu egin daitezkeela gugan sinistuta etsitzen ez badugu. Egia da behin eta berriz saiatzearenak ordainak dakartzala goiz edo noiz, egia da baita, bizitza festa bat dela; irauten duen artean etenik ez duen festa. Ospatu dezagun bada!

**Unai Villena**

## Ostegunetako azoka Sigmara

Datorren irailaren 2tik aurrera Sigmara bidali nahi gaitu Udalak. Eskutitz bat bidali digute, baina ez digute inongo azalpenik eman. Ez dakigu zein diren ostegunetako azoka Sigmara aldatzeko arrazoiak.

Joan zen uztailaren 15ean idatzi bat bidali genuen udaletxera azalpen eske, eta inor ez da gurekin harremanetan jarri. Udalak oso gaizki jokatu du gurekin. Uztailean jakinarazi ziguten albistea, eta abuztuan oporrak hartzen dituztenez, ez digute beraiekin hitz egiteko aukerarik eman. Dakigun gauza bakarra, irailaren 2an azoka Sigman jarri behar dugula da.

Honetaz gain, presioa egiten ari zaizkigu: uztailaren 22ko azokan hiru udaltzain postuei eta merkatariei argazkiak ateratzen aritu ziren. Argazki horien zergatia galdetu genienean, beraien lana egiten ari zirela erantzun ziguten, ordura arte azokan sekula udaltzainik agertu bada ere.

Sinadurak jasotzen hasi gara, eta herritarrek esan digutenez, Sigmara ez dira joango. Udalak berak ere badaki toki txarra dela, izan ere, festetan barrakek ere ez dute nahi izaten bertara etortzea.

Gure lanpostua kolokan ikusten dugu, eta oso arduratuta gaude! Gainera, herriko merkatarientzako ere kaltegarria da azoka Sigmara joatea, denok baitakigu azoka egunean jende mordoa ibiltzen dela kalean erosketak egiten.

Azalpenak nahi ditugu!

**Carlos Domingo**
**Azokako Merkatarien Batzordearen izenean**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzeak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia.**

ASTEKARIA
BARREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta: barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILEA: Elgoibarko Izarra

**LAGUNTZAILEA** Elgoibarko Udala **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegii **ZUZENDARIA** Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Amaia Erkizia **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. **AZALEKO ESAERA ZAHARRA** Gotzon Garateren liburutik **INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E. **TIRADA** 4.300 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

## KEXAK

◆ **Gazte koadrila batek, Mintxetako igerilekuak oso berandu irekitzen dituztela azaldu digu**: “Mintxetako igerilekuak goizeko 11:00etan irekitzen dituzte, eta hori oso berandu da. Oporretan gaude, eta lehenago irekitzea gustatuko litzaiguke. Eguraldi ona egiten duenean, oso luzea egiten zaigu 11:00ak arte zain egon beharra”.

◆ Neska talde batek esan digunez, **herrian txakur asko solte ibiltzen dira**: “Herrian eta Plaza Txikian, batez ere, txakurrak solte ibiltzen dira. Umeak jolasean dabiltzan bitartean, beraien atzetik korrika hasten dira, eta behin baino gehiagotan horzka egin izan diote haurren bati. Oso arriskutsua da, eta jabeek txakurra lotuta eraman beharko lukete umeak dabiltzan ingurunean”.



◆ Herritar batek esan digunez, **etxe berriak egiteko aparkalekuak kentzen ari dira eta aparkatzeko arazoa larria da**: “Dagoeneko oso zaila da Elgoibarren aparkatzea, eta etxe berriak egiteko, aparkalekuak kentzen ari dira. Ikastola aurreko aparkalekua kendu dute dagoeneko, eta Ubitarteko etxeak egiten hasten direnean, beste aparkaleku mordoa kenduko dituzte. Etxeak egitea oso ondo dago, baina aparkatzeko arazo larria daukagu herrian, eta irtenbideren bat bilatu beharra dago”.





◆ **Basarte auzoko bizilagun batek esan digunez, beraien auzoa alde batera utzita omen dauka Udalak**: “Ez dute Basarte auzoko belarra mozten, ez daukagu zakarrontzirik, farola bat zeharo okertuta dago, norbaiti gainera jausteko moduan. Autoek edozein modutan aparkatzen dute, eta ez daukagu herrira jaisteko espaloirik. Gainontzeko herritarrek bezala ordaitzen ditugu zergak, eta atentzio gehiago merezi dugula uste dut”.

◆ Herritar batek esan digunez, **Udalak herritarren segurtasuna gehiago zaindu beharko luke: “Santa Ana kalea oso estua da**. Alde batean espaloia dago eta autoek bertan aparkatzen dute. Beste aldean ez dago espaloirik, eta tabernetatik, dendetatik edo portaletik ateratzerakoan jendeak autoak mutur aurrean aurkitzen ditu. Behin baino gehiagotan autoak hormaren kontra jo izan dute, eta pare bat ume ere harrapatu dituzte bertan. Euria egiten duenean, askotan ezin izaten dugu ezta aterkia ireki ere, portale aurrean kamioi bat dagoelako. Postako kamioia ere, goizeko 8:30ean abiadura bizian pasatzen da kalean zehar, eta ordu horretan ume guztiak eskolara joaten dira. Ezbehar larriagoak pasatu aurretik, Udalak herritarren segurtasuna bermatu beharko luke”.



2004-VIII-23




Argazki hau **Inazio Garagartza**k laga digu. 1980. urteko San Bartolome jaietan ateratako argazkia da. Begira garai hartan nolakoa zen Altzolatarren Dorretxea! Orduan herriko postetxea zegoen bertan, eta gaineko aldean etxebizitzak zituen. Begira garai hartan nolako lur dotorea zegoen, gaur egungo herriko Kultur Etxearen aurrean!

Garai hartan ere, sokamuturrean ibiltzeko zaletasun handia zegoen herriko jaietan. Herriak biztanle gutxiago zituen urte honetan, baina jende ugari jaikitzen zen goizean goiz zezena ikustera joateko. Argazkian jende asko ikusten da zezenari begira.

ONDAIN
Kalitatezko tindategia
Arropen eraldaketa eta konponketa
San Frantzisko, 32 Tel. 943 74 35 08

ecenarro
Barruko erropak • Umeentzako erropak
San Frantzisko, 10 Tel: 943 74 26 19


NAVA
INPRIMATEGIA
• Diseinu Grafikoa
• Iragarkiak
• Karpetak
• Bisita Txartelak
• Kartelak
• Ezkontza Gonbidapenak
• Jaunartze Oroigarriak
• Hileta Oroigarriak etab.
ONDO PASAU,
SAN BARTOLOME JAIXAK!
DEITU, ETA ESKA EZAZU AURREKONTUA.
Santa Ana, 44 • Telf. - Fax: 943 74 44 51 • e-mail:nava@euskalnet.net • 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)


Muruamendiaraz
ELGOIBAR
Ondo pasau San Bartolomiak
Jaixak Ondo pasau"
Jaiak nahi badituzue
gozo-gozo igaro
Muruamendiarazen
aukera ugari dago
MURUAMENDIARAZ gozotegia · San Bartolome, 34-35 · Tel. 943 740 345

Zure logela aukeratzerakoan altzaria ez da garrantzitsuena. Koltxoi egoki bat aukeratu.

**Gure erakusketa bisita ezazu!**

TEMPUR

PRESIOA ARINTZEN DUTEN KOLTXOI ETA BURKOAK



15 URTEKO BERMEA



TEMPUR koltxoi eta burkoak gorputzaren formara egokitzen dira beharrezko lekuetan ezinbesteko sostengua eskainiz.

Dunlopillo





Dunlopillo-ren Talalay latexeko betegarriarekin ez duzu ohean izerdituko. Koltxoiaren fabrikazioan gorputzaren hezetasuna mantentzen laguntzen duten materialak soilik erabiltzen ditugu.

10 URTEKO BERMEA

%50 BERO GUTXIAGO EMATEN DU



laxy zzz

5 URTEKO BERMEA

funda aldagarria
30º tan garbikorra





Latexeko xafla bi aurpegietan.
5 dentsitate ezberdinekin.
Akaroen, onddoen eta bakterien kontrako Maestersan tratamendua kanpoko zorroan.

LAGUNAK

12 hilabetetan ordaindu dezakezu

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com



# “Utz egiozu oilarrari kantu egiten”

Edu Arrillaga

# “Utz egiozu oilarrari

## Eduardo Arrillaga arga




***“Herri Baten Argia” (1997) eta “Sokamuturra” (2001) erakusketak ikusteko aukera izan ostean, aurtengo San Bartolome jaietan eta irailaren 11ra bitartean Eduardo Arrillaga, argazkilari elgoibartarraren “Deja que cante el gallo” erakusketa ikusteko aukera izango da Kultur Etxeko erakusketa gelan. Ongarri Kultur Elkarteak antolatutako erakusketan Arrillagak Mugarik Gabeko Albaitariak Gobernuz Kanpoko Erakundarentzat Guatemala, Dominikar Errepublika, Haiti eta Bolibian duela 10 urte egindako argazkiak jarriko dira ikusgai.***

### “DEJA QUE CANTE EL GALLO”

Zuri-beltzean ateratako 30 argazkik osatzen dute “Deja que cante el gallo” erakusketa. Eduardo Arrillaga argazkilari elgoibartarrak Guatemala, Dominikar Errepublika, Haiti eta Bolibiako nekazal herri txiroen eguneroko bizitzan murgildu zen Mugarik Gabeko Albaitariak GKEaren eskutik. “Elkarteak berak jarritako izenburua da, baina izugarri gustatu zitzaidan. Esanahi bat du: oilarrak abesten ez badu, ez dago janaririk eta nahitaez emigratu beharra dago, eta honekin batera arbasoen kultura zaharrak galtzen dira”.

Mugarik Gabeko Albaitariak erakundeak herrixka urrun eta erdi galduetan egiten duen lanaren arrastoa jarraitu zuen Arrillagak bere kameraz. “Elikadura, osasuna eta hezkuntza moduko oinarrizko eskubideak ukatu dizkieten nekazari, arrantzale edo artzainak dira”.

### TXIROEN DUINTASUNA

Arrillagak nekazal mundua pixkanaka desagertzen ari dela azaldu digu, “Albaitarien lanari esker bertakoek ez dute hiri handietara emigratzen eta honenbestez ez dira kulturak desagertzen. Herrialde txiroak dira, baina harro daude beraien buruaz eta kulturaz eta hori da bertan jarraitzera bultzatzen dituen arrazoi nagusia. Dena dela, laguntza ezinbesteko zaie, bestela hirietara emigratuko lukete. Hirietan egon dira eta ezagutzen dituzte, badakite zer aurki dezaketen bertan. Horregatik, ahal bada, nahiago dute sorterrian geratu eta duintasunez bizi”.

### KONFIANTZA KONTUA

Turistak ailegatzen ez diren herrixka galduetan harritu egiten dira kanpotarrak ikustean eta zaila da bertakoei argazkiak ateratzea. “Asko kostatzen da jendearen konfiantza zureganatzea. Albaitariengatik izan ez balitz, urteak beharko nituzkeen egin dudan lana egiteko. Erakunde honek egin duen lanaren ondorioz bertakoen konfiantza eskuratu dute. Albaitariak beraien bizitzetarako bultzada bat izan dira eta garatzen lagundu dietela ikusi dute. Jendeak albaitari bat gehiago moduan ikusten ninduen eta horrek asko erraztu zuen nire lana”.



# kantu egiten"

## zkilariaren erakusketa



### MUGARIK GABEKO ALBAITARIAK

1987an sortu zen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Albaitaritza Fakultatean. Ikasle talde batek garapen bidean dauden herrialdeei laguntzeko erakunde bat sortzea erabaki zuen, eragin eremua nekazal jarduerara mugatuz. Abereen produktibitatea hobetu eta honekin batera nekazariek lanari etekin ekonomiko handiagoa ateratzea zen Mugarik Gabeko Albaitarien helburua.

Jende askok Mugarik Gabeko Albaitariek egiten duten lanari buruzko okerreko ustea duela aipatu digu Arrillagak, "Argi eduki behar da albaitariak ez doazela nekazari hauen animaliak sendatzera. Animalia berriak sartu eta nola hezi eta zaindu behar dituzten erakusten diete. Honez gain, zein diren beraien lurretan landatzeko barazki eta fruiturik egokienak, nola ureztatu, etab. irakasten diete". Garatu ahal izan daitezen behar beste ezagutza zabaltzen ditu Mugarik Gabeko Albaitarien erakundeak eta dena bertakoen eskuetan laga bukaeran.

### ERAKUSKETA

Lehen planoak eta paisaiak nagusi diren erakusketa oso selektiboa dela aitortu digu Arrillagak, "askoz zabalagoa izan zitekeen, baina argazki askoren artean aukeraketa egin behar izan dut, erakundeak dituen baliabideak mugatuak baitira". Bartzelonan jarri zen erakusgai lehen aldiz eta jadanik bi urte daramatza han eta hemen. Elgoibarren ikusgai egon ostean, Europan zehar jarraituko du bere bidaia erakusketak. Egileak erakundearen eskuetan laga ditu lanaren autore eskubideak. Hortaz, erakusketaren bitartez lortutako diru guztia eurentzat izango da.

### LIBURUA SALGAI

Erakusketak irauten duen bitartean izen bereko liburua egongo da salgai 6 euroren truke. Ez da argazkiez osatutako liburu bat soilik, idazle eta pertsonaia ezagunek musutruk idatzitako ipuinak ere biltzen baititu. Besteak beste, Ana Maria Matute, Doris Lessing edo Marcos subkomandanteak idatzitako ipuinak biltzen ditu.

### HIRU ARGAZKIKO BILDUMAK SALGAI

Bestalde, Ongarri Kultur Elkarteak Eduardo Arrillagaren 3 argazkiz osatutako bilduma jarriko du salgai. "Sokamuturra"ko argazki bat, erakusketa honi dagokion "La Flaca" izeneko argazkia eta "Herri Baten Argia" argazki bildumako beste argazki batek osatzen dute bilduma. Bildumak zenbatuta eta firmatuta egongo dira, 100 kopia bakarrik egin baitira. Kalitate handiko 18x24 tamainako hiru argazki dira. Selenioaz tratatuta daudenez 100 urtetik gora irauteko eginak daude. Prezioa 120 eurokoa izango da. Elgoibartarraren tamaina handiko argazki batek 700 eta 1500 euro artean balio dezakeela kontuan izan behar da.

## Urtero bezala, hemen dira San Bartolome jaiak

# JAIETAN DENA LIBRE AL DA?



### JUAN CARLOS MARKOS

**36 urte, medikua**

Jaietan ez dago mugarik, norberak jarri behar dizkio mugak bere buruari, baina bakoitzak nahi duena egiteko eskubidea dauka, beti ere gainontzekoak errespetatuz.



### KASTOR OTAEGI

**34 urte, ingeniaria**

Inguruko jendea errespetatu behar da, baina hortik aurrera bakoitzak nahi duena egin dezake. Urtean zehar egiten ez dena egiteko aprobetxatu daiteke, baina errespetuz.



### NEREA GURRUTXAGA

**10 urte, ikaslea**

Ez da dena libre, baina nik askatasun gehiago edukitzea nahiko nuke. Etxera joateko ordu mugarik ez edukitzea, eta gurasoek paga gehiago ematea gustatuko litzaidake.



### TERE DE LUIS

**47 urte, administraria**

Dena libre ezin da izan, mugak jarri behar dira. Norberak ikusi behar du zer dagoen ondo eta zer ez. Jaiak ondo pasatzeko dira, baina inguruko jendea errespetatu behar da.



### LOLI ELEJALDE

**56 urte, etxekoandrea**

Ez, ezin da dena libre izan, mugak jarri behar dira. Norberak ezin du beti nahi duena egin. Jaietan ondo pasatu eta disfrutatu egin behar da, baina kontrol apur batekin.



### AMAIA EZENARRO

**42 urte, psikologoa**

Ez dut uste dena libre denik. Jaietan ondo pasatu behar da, baina kontrolatuz. Inguruko jendea errespetatu egin behar da. Nik behintzat ez dut nire portaera aldatzen jaiak direlako.

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

Tel: 943 74 10 11

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!



Elgoibarko Izarra
Kultur Elkartearen aldeko
TXOSNA!
JAIAK,
JUERGA,
POZA.
etorri gurera eta goza!
"Euskaldunok batzen gaituena banatzen gaituena baino garrantzitsuagoa delako"




Gabi
JATETXEA
Nafarroa enparantza
Tel.: 943 74 12 30
Ondo pasa San Bartolome jaiak!
Jabe berriak Gabi jatetxean
Ez galdu San Bartolomeetarako prestatu dugun menua!

**Belaustegi Baserria** JATETXEA

*Jaietan ondo pasatu...*



*...eta mahaian gozatu!*



zatoz
San Bartolomeetarako
prestatu dugun
**menu berezia**
daztatzera!

San Migel gaina · 20870 ELGOIBAR · Tel. 943 743 102 · Faxa 943 743 641

Erreserbak 943 74 31 02 telefonoan

# PNEUMAX

KALITATEA ZIURTATZEKO SQS sistema
ISO 9001/EN 29001
Erreg Zk.: 10677-01

## ENPRESA

**PNEUMAX S.A.** enpresan, hau da, Italiako **PNEUMAX S.P.A.**k Espainian duen filialean, 25 urte baino gehiagoko esperientzia daukagu automatizazio pneumatikoaren alorrean.
Gure Elgoibarko instalazioek 1.000 m²-ko azalera dute estrategikoki kokatuta dagoen industri-poligonoan. Zilindroak muntatzeko eta materiala banatzeko dauzkagun metodo aurreratuekin, gure bezeroei zerbitzu azkarra garantizatzen diegu.



## EGITURA

**PNEUMAX S.P.A.** ren egoitza nagusia Lurano-n (Bergamo-Italia) dago, 13.000 m²-ko azalera dauka, goi-mailako koalifikazioa duten langileak ditu, eta etengabe ari da hedatzen. Bost filial ditu Europan eta Ekialdean, hiru Italian eta ehun kontzesionario esklusibista baino gehiago munduan. Era honetan garantizatzen da asistentzia eta produktuen distribuzioa mundu osoan.




## PRODUKTUAK

Gure produktu-gama zabalaren bidez erraz aurkituko duzu automatizazio-behar bakoitzerako produktu egokia. Izan ere, gure produktuak SQSk Ziurtatutako Kalitate Sistemaren bidez (Kalitatearen Ziurtapenerako Erakunde Suitzarra) proiektatu, garatu, fabrikatu, kontrolatu eta merkaturatzen dira, ISO 90001/EM 29001rekin, hain zuzen ere.

- Airearen tratamendurako FRL taldea.
- Mikrobalbulak
- Balbulak eta elektrobalbulak
- Balbula osagarriak eta osagaiak
- Balbulak eta elektrobalbulak hutserako
- ISO 5599/1 banatzaileak
- ISO 6432 mikrozilindroak
- ISO 6432 - VDMA 24562 zilindroak
- Biraketa-unitateak
- Ibilbide laburreko zilindro konpaktoak
- Zurtoinik gabeko zilindroak
- Abiadura-erregulatzaile hidraulikoak
- Gida-unitate linealak
- Txokerako WEFORMA amortiguadoreak

PNEUMAX S.A.
Olaso, 54 • **Tel:** 943 74 41 44-74
**Faxa:** 943 74 40 76
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)



# HIZKUNTZ

Ingelesa, Alemana, Frantsesa, Holandesa, Portugesa, Italiera e.a.

# SOLUZIOAK

**IRAILETIK HASITA 2004-2005 KURTSOKO IKASTAROAK**

- Maila guztiak
- Titulu ofizialak
- Esperientzia duten jatorrizko irakasleak
- Talde murriztuak
- Ikastaroak atzerrian
- Multimedia gela

**ENPRESA ITZULPEN ETA INTERPRETAZIO ZERBITZUAK**

- Esperientzia zabala duen lan taldea
  - Teknikoa (makina-erreminta)
  - Komertziala
  - Nazioarteko proiektuak
- Goi-teknologiaren erabilera
- Zerbitzu azkarra eta kalitatezkoa
- Prezio lehiakorrak

Ondo pasa jaiak!

INDUSTRY LANGUAGE SERVICES

IMH Eraikuntza
San Roke Auzoa, 1-P.K. 37
E-maila: ils@ils.es
Tel.943 744 040 Faxa: 943 741 654

# Movellán

P.M. Urruzuno, 10 - Tel. 943 74 37 66
www.movellan.com

sukaldeak - bainuak

Ergonomia, segurtasuna, ekologia, moldakortasuna, tradizioa eta berrikuntza
dira proiektu berri bat planteatzean kontutan ditugun kontzeptuak.



Emaitza, giro bakar eta errepikaezina







*Ondo pasau San Bartolome jaixak!*




# SAN BARTOLOMIAK 2004

# EGITARAUA



## alkatearen *agurra*

Urtebete pasa da San Bartolome jaietako zapi gorria Alkate bezala estreinakoz jantzi nuenetik. 365 egun asko dira, baina amen batean igaro zaizkit. Gogotsu hasi nuen urtea, irrikaz esango nuke. Atzera begirako bizkorra eginez, irudipena daukat bide luzea egin dugula. Gauza asko hasi ditugu, baina bukatu…!! Udalgintzan eta herrigintzan pausoak motelak izan ohi dira eta helburuak handiak. Tripulazio handia duen itsasontzia da geurea. Itsaso zakarretan ibili behar izaten dugu batzuetan. Ekaitzak eta enbatak sahiestu behar izaten ditugu, eta, halere, helmugara bizkor iritsi nahi izaten dugu askotan, bizkorregi akaso. Nahi eta ahal, horra hor gure nahien eta ahalmenen arteko muga. Baina tira, ez dezagun ahaztu esaera zaharraren ikasbidea: bidea eginez egiten da, pausoz pauso, urratsez urrats. Elgoibar txukundu, herriko txokoak berreskuratu, bizitoki egoki bihurtu… lan eskerga daukagu begi bistan. Nik, Elgoibarrek eta elgoibartarrok merezi dugun ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko lanean jarraituko dut. Hasieran nuen ilusio eta indar berberarekin.

Disfruta ditzagun ate joka ditugun San Bartolome jaiak. Jantzi dezagun zapi gorria. Atera gaitezen kalera eta busti ditzagun barruak pozez eta festa giroz. Egun zoragarriak igaro ditzazuela opa nahi dizuet guzti-guztioi. Har ditzagun esku zabalik kanpotarrak, gure artean izango ez direnak ahaztu gabe.

**Piztu dezagun denon artean jaietako suziria!**

**Gora San Bartolome!**

**Marivi Agirregomezkorta**

Mahape **taberna**



Orain astegunetan

San Frantzisko, 60

Anchústegui & Sanyfer

**ESPOSIZIOA**
**ALMAZENA**
**BULEGOA**

Olaso industrialdea
Olasope, 5 · 20870 - ELGOIBAR
**Tel:** 943 74 33 44 - 74 23 71
**Faxa:** 943 74 37 11

**JOSE** *pinturak*
**(Txema)**

**Mota guztietako pintura eta enpapelatuak. Zoluak, moketak, sintasola, kortxoa, etab. jartzen dugu.**

San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

MEKANOSA
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ PLANOEN BIRREGILEAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX

Lanbroa




Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7tik aurrera
Larunbata eta jaiegunak goizeko 8tik aurrera

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06



## ABUZTUAK 22, *domekia*

**20:00 "DEJA QUE CANTE EL GALLO" ARGAZKI ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA**
Kultur Etxeko erakusketa gelan
Egilea: Edu Arrillaga



# San Bartolome Bezpera

## ABUZTUAK 23, *astelehena*

**9:00 LVIII MEMORIAL ETXANIZ TXIRRINDULARI LASTERKETA**
Amateurrentzat (20-23 urte). Gure Bide Elkarteak antolatuta.
Irteera: Foruen Plazan
Helmuga: Trenbide kalean

**13:00 TXUPINAZOA eta KANPAI JOTZEA**
Ikurrina jasoko da jaiei hasiera emateko.
Foruen Plazan.

**Jarraian,** Mauxitxa Txarangaren kalejira.



# EGITARAUA




**16:00-20:00 HAURRENTZAKO PARKEA**
Foruen Plazan. (Euria egiten badu, Ikastolan).

**16:30 IZUGARRIZKO SORPRESA**
Zaharren Biltokian.

**17:00 ERRALDOI eta BURUHANDIEN KALEJIRA**
Herriko dultzaineroekin batera.



**20:00 SALBEA PARROKIAKO ABESBATZAK ABESTUTA.**
Udalbatza San Bartolome Parrokiara joango da, aurretik Alkate Soinua joz, Udal Txistulari Taldeak lagunduta.

**Jarraian,** Kartel Lehiaketako irabazleen sariak banatuko dira Udaleko Pleno Aretoan.

**22:30 "FITO&FITIPALDIS" ETA "ARIMA BELTZA"**
Ikastolan.




karkizano
San Frantzisko, 14 – Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

Iriondo TABERNA
Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan
Pedro Muguruza, 2 · Tel: 943 74 00 15

Bukatu S. Coop.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estaldura
Zoluen kolokazioa
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 570

URKIDI AHOLKULARITZA
KONTABILITATE
LAN
FISKAL
Kalamua, 12 · ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91
ASEGURUAK

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

# San Bartolome Eguna

**ABUZTUAK 24,** *martitzena*

**9:15 HERRIKO DULTZAINEROEN DIANA**



**9:45 UDAL TXISTULARI TALDEAREN DIANA**

**10:00 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA**



**10:45 ELGOIBARKO ZAINDARIAREN PROZESIOA**
Udal Musika Bandak, Txistulari Taldeak eta Udalbatzak lagunduta. Denak batera, San Bartolome Parrokiara joango dira Meza Nagusira. Mezatan Parrokiako Abesbatzak kantatuko du.

**Jarraian, SOKA DANTZA** Haritz Euskal Dantzari Taldearekin eta Udal Txistulari Taldearekin Foruen Plazan.



Txarriduna
JATETXEA
Jaietako Menu bereziak,
Plater konbinatuak, Kazuelatxoak,
Bokadiloak...
Aupa San Bartolome!
Ermuaranbide, 1 · Tel. 943 74 04 90

BRONCES GARITANO, S.A
BRONCES GARITANO, S.A.
San Bartolome Jai zoriontsuak!
www.broncesgaritano.com/ broncesgaritano@telefonica.net
Olaso kalea, 15 · 20870 ELGOIBAR · Tel: 943 74 41 25/74 41 26

albe
LAUKETAK - MORTASAKETAK
BROTXAKETAK
NONIUS GRABATUAK
ONDO PASAU FESTETAN!
Sigma Industrialdea · Xixilion, 2 beheko solairua 9
Tel. 943 743 286 ELGOIBAR (GIPUZKOA)
talbe@euskalnet.net / www.albesl.com

Maria Urizar
ILEAPAINDEGI MISTOA eta SOLARIUMA
Jai Zoriontsuak pasa itzazue!
Errosario, 9-1 ezk.☎ 943 74 44 89

# EGITARAUA



**Ondoren, UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA**
Foruen Plazan.
Zuzendaria: Jose Antonio Osoro Agirre.

**16:30-21:00 HAURRENTZAKO PARKEA**
Foruen Plazan. (Euria egiten badu bertan behera gelditukoda).



**17:30 ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA**
Herriko dultzaineroekin batera.

**18:00 PROFESIONALEN ESKU-PILOTA PARTIDUAK**
Ikastolako Frontoian.

**19:30 JUVENIL LOS REYES MARIATXIEN KALEJIRA**



**23:00 SU ARTIFIZIALAK**
Astondoa Pirotekniarekin IMHko aparkalekuan.

**Jarraian, JUVENIL LOS REYES MARIATXIAK**
Foruen Plazan.

**Goizaldeko 5:30etan, TXOKOLATE JATEA**
Madalako Parkean.

# Osasunean
## ADITUAK

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

**Kemen** Belardenda
(Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, yoga)
San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

**Surya** Belardenda
(Osasun naturalaren zure zentroa Elgoibarren. Informa zaitez)
San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

### OPTIKAK

**Ikus** Optiko-optometrista
San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri**
(optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**
San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK

**Iñaki Rivero**
San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**
Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

**Oinberri**
Errosario kalea, 25 • Tel: **943 74 17 95**
Astearte-ostiraletan: 9:00-13:30 / 15:00-19:30
Larunbatetan: 10:00-13:00

